

pergolari

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2012ko abendua / 8. zenbakia



**Badatoz
Kilometroak!**

Pergolako oroitzapenak

Hitz gutxitan, ikastolako oroitzapenak idazteko eskatu didate, txaposa xamarra naizela kontuan izan gabe... Saiatuko naiz, bada!

Gogora datorkidan urruneneko pentsamendua gure *parbulitos*-eko andereñoa, arlekinez jantzita, dotore, xehetasun guztiekin, ezker aldea gorritz eta eskuina berde kolorez jantzia... Oraindik ere batzuetan deskuidatu egiten naiz zein den bata edo bestea. Gorriak ezker aldekoak, orduan?? Bere ahaleginak eta gero!!

Mila une gozo biziak, beste batzuk gaziagoak, baina denetan oihartzun gehien bi oroitzapenek, aurrera motibazio bihurtuak.

Bata, irakasle batek, judoko txapelduna zela esan zueneko; eta nirekiko pentsatu nuen orduan: emakumea, ama, irakaslea, oriotarra, kirolaria, txapelduna..., bateragarriak??

Bestea, maisu batek, ikastolako azken urteetan; berak Euskalerrriarekiko erakutsi zigun maitasuna eta mendiaz gozatzeko grina, aldapak gaindituz.

Nire ikastola: nire ama lurra eta nire ama hizkuntza neure nortasunean itsatsi duena. Aita-ama lurra, hizkuntza, hezkuntza; denok gara berdina nahiz eta desberdina izan, eta denok merezi dugu nahi dugun bidea erabakitzeko aukera.

Nire alabatxoei opari eder bat egitekotan: izan ditzatela beraiek ere ikastolako oroitzapenak, ez nireak, eurenak baizik.

Eder Etxeberria



Joxe Mari Aizeaga, hernaniarra, konprometitua...

Ikastolakideon artean bada guraso bat askotan telebistan eta albistetan ikusten duguna: Joxe Mari Aizeaga Basque Culinary Center-eko zuzendaria. Bera ikastolako guraso eta Artezkaritza Kontseiluko (Batzordea) partaide ere bada. Guztiok hobeto ezagutzeko ekarri dugu txoko honetara. Bere lana dela eta denbora gutxi izan arren, berarekin egoteko tarte hartu dugu; irribarre handi batez hartu gintuen galdeketatxo hau egiteko garaian.

Zer dela-eta etorri zineten Oriora bizitzera?

Hernanin bizi nintzen eta Arrasaten aritzen nintzen lanean, baina urrutitxo geratzen zitzaidan. Orduan bizilekuz aldatzeko erabakia hartu nuen nire familiarekin batera, eta pentsatzeari ekin genion; ez genuen nahi Hernani eta Donostiatik asko urrundu. Hala, Orio leku polita iruditu zitzaigun. Sei bat urte badira hemen bizi garela.

Zergatik hautatu zenuen Orioko Herri Ikastola?

Bada, ni ikastolan ikasia naiz eta iruditu zitzaidan umeak eskolara joateko ikastola bera zela egokiena: hezkuntza ereduagatik, hizkuntzarengatik, herrian oso txertatua dagoen ikastetxea delako...

Zergatik zaude Batzordean? Gustura al zabilta?

Guraso bezala eskatu zidaten, edo gonbidatu ninduten ea parte hartu nahi nuen, eta pentsatu nuen "konpromisoa ere hartu behar izaten dela batzuetan". Ahal den neurrian nire ekarpena ere egiten dut.

Denbora ematen al dizu lanean eta Batzordean aritzeko?

Daukadan lanak denbora luzea eta dedikazio handia eskatzen dit, horregatik beti justu xamar ibiltzen naiz Batzordean egin beharreko gauza guztiak osatzeko. Halere, Batzordean gauden guztiok ondo moldatzen gara, lanak banatuta baititugu.

DBH-4ko ikasleak



2014an Kilometroak festa gurean izango da berriz ere.

Kilometroak 2014 Orion

2004an Olatu Berria pasatu zen Orio eta Zarautzetik, baita arrastoa utzi ere. 10 urteren buruan, 2014an, Oriora dator berriz Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia. 2014an “urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta hogeita hamalau” izango dira Orion. Denon artean lortuko dugu hori.

Olatu Berri hura

Maider Beldarrain Orioko ikasle ohiak oso presente du 2004ko Olatu Berri hura. Horrelaxe gogoratzen du egun handi hura.

“Amona Inaxi eta aitona Pe-laiok ederki erakutsi ziguten biloba guztioi urriko lehen igandean Kilometrotara joaten. Berdin zuen hotza ala kazkabarra egin, berdin zuen Gipuzkoako beste puntan izan, gu han ginen. Oraindik ere orduko argazkiak ikusten ditudanean, irribarrea ateratzen zait. 2004ko igande eguzkitsuz gogoratzean ere egun ederra datorkit burura.

Ama egun osoan plazako kiosko azpian arropa saltzen egon zen, aita aparkalekuko seinaleak jartzen, eta anaiak, biharamunean, ikastolako gainerako ikasleekin batera herria txukundu zuen. Ni autopista azpiko gunean egon nintzen egun osoa, gazteen gunea zen hartan. Eguna bokatak prestatzen pasatu nuen, hobe esanda, sardexka eskuan solomoei bueltak ematen egon nintzen parrila baten aurrean. Bakoitzak bage-nuen geure eginbeharra, baina halakoak gustura egiten diren lanak dira. Olatu Berria iritsi zen egun hartan Oriora, eta bertan geunden guztiok busti ginen ur

gaziak. Orion ez zen sekula halako jairik izan, inoiz ez zen hainbeste jende izan herrian, baina dena ezin hobeto antolatua zegoen. Guraso, ikasle, irakasle, anonimo, euskaltzale eta lagundu nahi zuen ororen parte-hartzearekin bazirudien Orion urtero horrelako jaiak antolatzen zirela. Kilometroetara urtero joan banaiz ere, norberaren herrian direnean guztia bestelako intentsitate batekin bizitzen duzu. Itsaso Zahar eta Olatu Berri haiek gure egin genituen; Berriari, zetorren horri, ahalik eta gehien bultzatuz. Orioko Herri Ikastolak bere ibilbidea duela 40 urte zimitorioan hasi

zuen, eta ordutik gaurdaino asko gara bertan ikasi dugunok. Asko gara goizeko zortzi eta erdietarako motxila hartu eta gelan ginenok, Oihana Alkorta-ren abestiak zioen moduan. Jada ez ditugu ikastolako etxeko lanak, baina orduan ikasitakoak ez ditugu ahaztu. Olatu Berri hura ahaztu ez dugun moduan.

Zu eta ni olatu bereberean sartu ginen duela bederatzire urte. Bidean beste olatu batzuekin talka egin badugu ere, barealdi luzeak ere izan ditugu.

Orain, berriz, olatuaren aparrean gaude zu eta ni, irrikaz, etorriko denari so.”



Miren Ercilla HHko gurasoa.

Gurasoak gelan

Ikastolan argi daukagu umearen hezkuntza guraso eta irakasleen arteko elkarlana dela. Horren harira, azken ikasturteetan gure ikasgeletan gurasoen presentzia handitu nahian gabiltza; izan ere, gurasoak ikastola barruko jardueretan parte hartu dezaten ahalegindu nahi dugu. Nola, ordea? Irakasleaz gain, gurasoak ere ikaslearen hezkuntza bidelagun izan behar du, eta bide horretan, noski, guztiok ditugu erakusgai izan litezkeen abilezia, jakinduria edota zaletasun zein ofizio. Hau da, edozein gurasok bere lanbidea nolakoa den azaldu dezake ikasleen aurrean; edo lanaz aparte zaletasun berezirik badu (kiroletan, artean, literaturan, zinean... edozein hobby), haren berri ere eman dezake gelan.

Adibidez, duela gutxi, Haur Hezkuntzako geletara pianoa jotzen duen guraso bat etorri zen. Ikasleak musika klasikoa lantzen ari ziren gelan, autore ezberdinen bizitzak aztertzen, beraien obrak ezagutzen eta entzuten. Ikasleetako batek bere amak pianoa jotzen zuela esan zion andereñoari; hala, andereñoa gurasoarekin kontaktuan jarri zen gelara etor zedin pianoa jotzera. Aurrez, gurasoarekin saio txiki hori prestatu zuten; pianoz joko zuen autoreen bizitzei buruz azalpentsu batzuk eman, eta, ondoren, piano entzualdia. Horrenbestez, ikasle honen amak ordu erdi inguruko saio ederra eskaini zien haurrei.

Ikusten duzue, ahalegin txikiarekin zein emaitza handia lortu daitekeen.

Batzar Nagusian ikastolak antolatzen dituen ekintzak guraso guztien artean aurrera eramatea erabaki zen.

Ez Ohiko Batzar Nagusia

Urriaren 18an ikastolako Ez-Ohiko Batzar Nagusia egin zen. Lau gai nagusi tratu ziren Batzarrean.

Lehenengoan, 2012-2013 ikasturteko Kudeaketa Plana aurkeztu zen guraso eta langileen aurrean. Kudeaketa Plana hiru arlo nagusitan banatzen da: Gai orokorrak, Hezkuntza eta Ekonomia.

Gai-zerrendako bigarren puntuan, ikastolan egin asmo den Plan Estrategikoaren berri eman zen. Gogoeta estrategikoa egiteko arrazoiak azaldu zitzaizkien kooperatibako bazkideei. Epe ertainera (3-4 urte), Orioko Herri Ikastola, Kooperatiba Elkarte

zer izatea nahi dugun, eta helburu horiek nola erdietsiko ditugun adosteko egitasmoa da aipatutakoa.

Hirugarren gai gisa, ikastolan martxan jarri asmo den proiektu pedagogikoa azaldu zen: konpetentzietan oinarritutako hezkuntza. Orain arteko irakaskuntza moduak aldatu egingo dira; edukietan oinarritu beharrean ikasleei konpetentzia ezberdinak lortzeko egoerak planteatuko zaizkie. Ondorioz, irakasleen rola ere birmoldatu egingo da, ezagutzak erakutsi beharrean konpetentziak lortzeko bidelagun izango dira.

Amaitzeko, azkeneko gai bezala, ikastolak antolatzen dituen kirol eta kultur ekimenak kudeatzeko proposamena plazaratu zen. Ikastolak urtean zehar antolatzen dituen dozena bat ekintza guraso guztien artean aurrera eramatea da asmoa, eta, horretarako, ikasmaila bakoitzeko gurasoek urtero ekimen berdinean laguntzeko ardura izango dute. Adibidez, urtero ikastolak antolatzen duen Herri Lasterketan LH-4. mailako gurasoek lagunduko dute. Proposamena Batzarrean bertaratutako bazkideek bozkatu zuten, eta aurrera atera zen.

Herri Lasterketa

Azken urteetan ikastolak antolatu duen legez, abenduaren 16an, igandearrekin, Herri Lasterketa izango da Orion. Irteera Ikastola aurretik goizeko 11:00etan emango zaio, eta bi ibilbide izango ditu: bat motza, 7 kilometrokoa (itzuli bat); eta, bestea, luzea, 14 kilometrokoa (bi itzuli). Izena emateko www.oriokoikastola.net webgunean sartu behar da.

Ikastola handitzen

Ikasle kopuruak gorantz egiten jarraitzen du ikastolan. 2011-2012 ikasturtean 628 ikasle izatek ikasturte honetan 654 izatera pasatu gara. Ondorioz, familia kopurua ere handitu egin da, aurreko ikasturtean ziren 401etik ikasturte honetako 425era. Sustraiak herrian sendo dituenak loreak ugari ematen ditu. Bejondeizuela!

Inaxito

Trikuharri Taldea osatzen duten ikasle ohie esker, Galtzagorrieto, Inaxito bertso-antzerkiaren azken emanaldia ikastolari eskaini zitzaion bere 40. urteurrena zela-eta. Saioa urriaren 5ean egin zen, aste horrek ikastolarentzat duen garrantzia sinbolikoa kontuan izanda; duela 41 urte, ikastolaren lehen eguna urriaren 4a izan zen, eta Kilometroak 2004 jaia urriaren 3an.

Ikastolak izan ziren aitzindariak ingelesaren irakaspén goiztiarrean; hots, 4 urterekin jolasean, antzerkiaren bidez, atzerriko hizkuntza ikasten hasi ziren gaur egun 20 urte dituzten ikasle-ohiak. Baina nola irakasten zaie ingelesa? Zertarako hain goiz hasi? Jarraian dituzue erantzunak.

Nola ikasten da ingelesa Ikastolan?



Haur Hezkuntzako ikasleak English gelan.

Lau urteko neska-mutilak U forman biribilean eserita daude txintxo-txintxo. Eskuak atzean dituzte guztiek, eskuinean arraintxo bat, ezkerrean olagarroa. Bat-batean, eskuineko eskuak arrainaren mugimendu kulunkariak egiten hasi dira, denak batera, *fish, fish, fish, fish...* esaten ari direla. Ondoren, ezkerreko eskua burugainetik aterata, behatzak dantzan, olagarroa azaldu da: *octopusy, octopusy, octopusy...*, eta olagarroak arraina jan du. Lau urterekin, jolasean, antzerki txikiak egiten, ingelesez hitz egiten hasten dira ikastolako ikasleak: globoa utzi nahi ez duen umea; gauean negarrez esnatzen den haurra; lau begi, hiru sudur, bost belarri, hiru aho, lau beso eta hanka dituen munstroa... 2. maila arte

ikaslearen bizipen hurbilarekin lotura duten egoerak antzezten dira ingelesez; ondoren, ikasleak bereganatu duen ahozko komunikazioa norbere bizipenekin lotzeko.

3. mailatik 6. mailara proiektu txikiak osatzen dituzte talde lanean: tarta egin, komikia osatu, aldizkaria argitaratu, telebistako lehiaketa prestatu, irrati saioa egin... Adin-tarte horretan idatzizko ingelesak bere espazioa hartzen du, izan ere, proiektuekin lotutako irakurketa eta idazketa jarduerak proposatzen dira. Nola ez, hizkuntzaren alde ludiko eta kulturalak ere txertatzen dira: abestiak, olerkiak eta jolasak.

Gure ikasleak DBHra igarotzean, ingelesa ikas arlo ezberdinetan lantzen hasten dira:

Musikan, esaterako, diziplina horretako oinarriak eta musika tresnak lantzen dituzte; Natur zientzietan, ozeanoetako sekretuak aztertzen dira; Gizarten, Europako geografia, kultura eta politika ezagutzen dira; Plastiketan, koloreak eta neurriak; Literaturan, narrazioa, olerkia eta antzerki generoak... Azkenean, DBH 3 eta 4. mailetan, irakasgai oso bat, Gizarte Zientziak hain zuzen, ingelesez ikasten aritzen dira ikasturte guztian zehar: Euskal Herriko nekazaritza, munduko klima ezberdinak, turismoa, zerbitzuak, globalizazioa, garapenean dauden herrialdeak, Erdi Aroko historia, Frantziako Iraultza, Gerra Zibila, Iraultza Industrialak, Gerra Hotza...

Lau urterekin *A balloon*-ekin

hasi eta 15 urterekin *The wall of Berlin fell during the night of 9th November 1989* historia hurbila kontatzeraino. Eta, ondoren, gure ikasleak nola aritu dira ingeles hizkuntzan? Hurrengo elkarrizketan jakingo dugu.

**DBH 3 eta 4. mailetan
Gizarte Zientziak
irakasgaia ingelesez
ikasten aritzen dira
ikasleak urte guztian
zehar: Euskal Herriko
nekazaritza, munduko
klima ezberdinak,
Gerra Zibila,
globalizazioa...**



Ikasleak eta irakaslea aurrez antzestu duten ipuina elkarrekin kontatzen.

“Oso oroitzapen onak ditugu ingeleseko irakasgaiarekiko; abestu, dantzatu eta jolastu, egiten genuen”

Ander Mujika eta Ane Etxabe

Zein oroitzapen duzue ingeleseko lehenengoz ikastolan ikasten hasi zinetenean?

Ondo pasatzen genuen ingeleseko eskoletan, oso exotikoa egiten zitzaigun eta grazia egiten zigun. Ulertu ez genuen tutik ere ulertzen, baina pare bat hitz ikasten genituen, eta haiek errepikatzen genituen behin eta berri. Behin agurtzen ikasita, jende guztia ingelesez agurtzen genuen, ingeleseko adituak bagina bezala.

Ondo pasatzen al zenuten ingeleseko ikasten? Anekdotarik edo gustuko jarduerarik gogoratzen duzue?

HH eta LHko oso oroitzapen onak ditut ingeleseko irakasgaiarekiko. Orokorrean, ondo pasatzen genuen, gauza ezberdinak egiten genituen, beste irakasgaietan egiten ez genituenak,

eta hori oso gustuko genuen: abestu, dantzatu, jolastu... Gogoratzen gara antzerkiak ere egiten genituela, ziur gaude gelako guztiok gogoratzen ditugula.

Ikastolan ikasitako ingelesak, zein eragin izan du zuengan ondorengo ikasketetan?

Ingelesaren eskaera geroz eta handiagoa da hezkuntza mota guztietan. Gure kasuan, ikastolaren ondoren egin izan ditugun ikasketetan eskatu digute ingeleseko, eta antzeko egoerak izan dituzte gainerako lagunek ere. Poliki-poliki, egoera baikoitzean eskatu izan diguten maila lortzen joan gara; baina hizkuntzaren oinarri sendo bat izatea oso garrantzitsua da ondoren hori hobetzen, eta maila handiagoa lortzen joan ahal izateko.

Atzerrira joateko aukera izan zenuen. Azaldu zein esperientzia izan duzun ingelesekin atzerrian.

Uda hau gazteentzako aterpetxe moduko batean pasatzeko aukera izan dugu Las Vegas hirian, eta bertako jendeaz gain mundu guztiko jendearekin elkartu gara. Horrelako egoera baten aurrean bi aukera daude: isilik gelditu edo ingelesez hitz egin. Pixkanaka hizkuntza horretan ere komunikatzeko gai garela ikusi dugu. Alde batetik, gure ingeleseko akademikoagoa da errealitatean lagunen artean erabiltzen dena baino; eta, bestetik, ezberdintasun handiak daude hiztunaren jatorriaren arabera. Hala ere, batzuetan, bi aldiz galdetuz, eta, besteetan, mimika pixka bat egin ezin hobeto moldatu gara, hau baita ikasteko modu bakarra.

Garrantzitsua iruditzen al zaizue gaur egun ingeleseko menderatzea? Zergatik?

Gero eta garrantzitsua iruditzen zaigu ingeleseko ikastea, ez dago inongo zalantzarik; ingeleseko hizkuntza internazionala, eta edonon moldatu ahal izateko hizkuntza hori menderatu beharra dago. Horrenbestez, ingeleseko ez menderatzeak asko mugatu eta isolatu dezake. Horrez gain, profesionalki ere gero eta gehiago eskatzen da ingeles maila ona izatea.

Horregatik guztiatik, ingeleseko ikastea oso garrantzitsua dela uste dugu, eta hori lortzeko era egokiena txikitatik ikasten joatea da, gainerako irakasgaiarekin batera; ondoren, guztiek munduak hitz egiten duen hizkuntza menderatu dezaten.

“Atsegin ditut pergola eta parke orduak”

Goizeko bederatzietako, Maialen eta Estitxu alabak ikastolan utzita harrapatu dugu Mikel Orbañanos Arkaitz tabernan. Oriotar ez direnek arraunetik ezagutzen dute; azken urteetan ibilbide arrakastatsua egin du Hondarribiko traineruko entrenatzaile gisa. Oriotarrok, ordea, arraunetik haratago, egunero egiten dugu topo berarekin kalean, auzoan edo ikastolan. Goizeko kafearen eta tabernako giroaren epelean aritu gara hizketan, patxada ederrean.

Hasi al zarete entrenatzen, Mikel?

Bai, azaro hasieran. Ustez oporrak luzeak dira, baina konturatzera berriz ere lanean gara. Aurreko urteko sasoiak ez galtzeko hasten gara hain goiz entrenatzen. Badira arraunlariak epe luzean kirola egiteari utziz gero, sasoiak erraz galtzen dutenak. Berrituz gero ez abiatzeko hasten gara orain.

Entrenatzaileontzat hilabeterik gogorrenak al dira urria eta azaroa?

Nire kasuan, ez. Gure klubak filosofia zehatza du, eta talde berria osatzerakoan ez dut hainbeste lanik egiten. Lanik handiena aurreko urteko arraunlariak mantentzea da, eta nik hori sakrifikatu beharra daukat. Beti izaten da norbait kontentzitu beharra, eta arraunlari bakoitzarekin hitz egiten dut. Hala ere, ez naiz kontentzitzen denbora luzea gastatzen duena, norberak jakin behar duelako zer nahi duen. Baina, egia esan, askotan, atsedean sasoiak baino buruko minen garaia izaten da. **Baina, izaten al duzu atsedeen urrian?**



Ibon Gaztañazpi Mikel Orbañanos egin dio elkarrizketa.

Bai. Lehen, emaztea eta alabekin kanpora joaten nintzen. Azken aldirian, ordea, nik arrauna bukatu eta orduantxe hasten da lanean emaztea. Horregatik, familiarekin oporraldiak Aste Santurako uzten ditugu.

Orain umezain tokatzen zaizu, beraz?

Hori da. Udan egiten ez ditugun lanak, alabekin, behintzat, orain egiten ditut.

Azken bi denboraldietan traineru barruan gutxiago ikusi zaitugu. Pixkanaka arraunlari lanak uzten ari al zara?

Gero eta estropada gutxiago jokatzen ditut, eta aurtengo ere ideia bera darabilkit buruan. Gustatzen zait mutilekin batera entrenatzea, baina lehiaketa uzten joango naiz. Iruditzen zait arraunlariak eskertzen dutela, eta modu horretan, gainera, entrenatzaile lana hobeto betetzen dudala iruditzen zait.

Egunero ikusten zaitugu alabekin ikastolan. Nola uztartzen dituzu lana eta guraso betebeharrak?

Egia esan, zorte handia daukat arraunlari profesionala naizelako. Egunero, goizez eta arratsaldean, Hondarribira joan beharra izaten dut; baina ordutegi aldetik malgutasun handia daukat. Nahiko ondo antolatzen naiz emaztearekin eta umeekin, eta familiarekin egoteko tarteak izaten ditut.

Zer moduz pergola eta parke orduak?

Gustura egoten naiz, ikusten dudalako umeek gozatu egiten dutela bertan. Umeak umeekin pozik daude, eta askotan gu geu gara hainbeste ordutan hori egon nahi ez dugunak. Akaso, guretzako denbora galtzea dela iruditzen zaigu, baina haurrentzat lekurik aproposenak horietan dira. Gainera, beste gurasoekin berrikeria eta gustura egoten naiz.

Guraso ez ezik, ikastolako ikasle ohi ere bazara. Nola gogoratzen duzu zuen garai hura?

Oroitzapen oso onak ditut. Eta ez eskola ordutakoak bakarrik, baita gelaz kanpokoak ere. Go-

goan dut futbolekin, bizikletan edo beste jolasetan nola aritzen ginen: hil ala bizi! Ederki ibiltzen ginen. Bestalde, oso pozgarria da orduko ikaskideekin eta irakasleekin gaur egun tratua mantentzea. Gainera, lehen hemen jolasten genbiltzanok oraindik hementxe gaude, baina guraso moduan. Orduko belaunaldiak eman ditu fruituak!

Belaunaldien arteko aldaketarik handiena, non sumatzen duzu?

Iruditzen zait ikasleak orain alaiago datozela ikastolara. Ez dut esango lehen gogoz kontra gendotzenik, baina gaur egun oso pozik etortzen dira. Haurrentzat erakargarria da ikastolara etortzea. Lehengo eta oraingo irakasleen artean ez da halako alderik gongo; uste dut metodologia dela pixkanaka aldatu dena eta horretan eragina izan duena, onerako noski! Haurrak gustura ikusten ditut, behintzat, eta hori da garrantzitsua.



Ongi etorri gure familiariara!

Aurten HH-2ko gelan 44 haur hasi zarete, eta poz-pezik gaude zuek etorri zaretelako. Asko baldin bazarete ere, talde txikitan zainduko zaituztegu goxo-goxo, zuetako bakoitza baita garrantzitsua guretzat. Zuen guraso eta etxekoez gain, gu geu ere izango gara zuen heziketaren partaide. Zuen ongizatea gurea balitz bezala zainduko dugu. Zuhaitz erraldoi bat da gurea, sustraiak ondo errotuta dituen zuhaitz zabala; zuek aurten sortutako adartxoak zarete, eta pixkanaka-pixkanaka adar sendo bihurtuko zarete beste adartxo batzuei lekua utziz. Ongi etorri Julen, Beñat, Lierni, Aday, Unax, Sara, Alex, Mikel, Markel, Irati, Julen, Iker, Xare, Laida, Enaitz, Iraia, Unax, Adur, Adei, Unai, Itxaso, Aroa, Julene, Gotzon, Elaia, Julen, Janire, Iago, Xabat, Ane, Itxaso, Aritz, Shua, Haran, Diago, Iraia, Mayling, Beñat, Eneko, Naia, Luken, Alaine, June eta Oier! Biba zuek!

Agenda

ABENDUAK 3, astelehena

Euskararen eguna ikastolan.

ABENDUAK 6, osteguna

10:00 Xake txapelketa, Kultur etxean.

ABENDUAK 8, larunbata

10:00-20:00

3x3 txapelketa, Karelan.

ABENDUAK 16, igandea

11:00 Herri Lasterketa, ikastola aurretik.

ABENDUAK 21, ostirala

San Tomas eguna, ikastolan.

ABENDUAK 20, ostirala

10:00 Mari Domingiren etorrera ikastolara.

ABENDUAK 24, astelehena

11:00 Gabon eskea kalez kale.

11:00 Ruandari laguntzeko elkartasun tonbola plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herrira.

ABENDUAK 28, ostirala

17:00 Gabon kanten, euskal jantzien eta

estalpeen lehiaketa pergolan.

18:00 Gaztaina jana pergolan.

URTARRILAK 18, ostirala

15:00 Haur danborrada, ikastola aurreko plazan.

URTARRILAK 25, ostirala

17:30

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria.

Karela kiroldegian.



kutxa